

GOBERNU BATZARRA

2017 09 25

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko irailaren hogeita bostean, 08:00etan, Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
Olatz Peon Ormazabal	
Zinegotziak:	
Patxi Amantegi Zubiria	1.- Aurreko akta onartzea.
Nerea Letamendia Belloso	2.-Iurramendi Egoitzak aurkeztutako 13/2017 zka.duen faktura zerrenda.
Jokin Azkue Arrastoa	
Iñigo Alonso Sarasibar	
Beh. Beh. Idazkaria:	3.-Udaberri Dantza Taldearen 60. urteurrena. Diru laguntza.
Karmele Contreras Goikoetxea	
Kontuhartzaitza:	4.- Iparragirre 2an igogailua jartzeko diru laguntza proposamena.
Ainhoa Molinos Zubiaurre	5.-49-50/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2017ko irailaren 18an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Iurramendi Egoitzak aurkeztutako 13/2017 zka.duen faktura zerrenda.

Iurreamendi egoitzak **13/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **313.242,10** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Iurreamendi Egoitzak aurkeztutako **13/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari eta lurreamendi Egoitzari.

3.- Udaberri Dantza Taldearen 60. urteurrena. Diru laguntza.

Tolosako Udaberri Dantza Taldeak egitasmoa berezia aurkeztu du 2017rako, aurten betetzen baita taldearen 60. urteurrena.

Egitasmo honetan era askotako ekimenak aurrikusi dira: bideo baten ekoizpena, festa-egun berezia, emanaldi berezia jantzian desfilea...

Egitasmo honen azterketa egin ondoren, beronek _Tolosako udalaren laguntza merezi duela jotzen da ezaugarri hauek baldintza hauek betetzen dituelako:

a) Euskal folkloreak eta bereziki Tolosakoaren ikerkuntzan, kontserbaioan eta zabalkundearen egiten duen lanagatik.

b) Tolosako kultur dinamikan eragile modura betetzen duen paper aktiboa urteurren honen ospakizunarekin sedotu eta oraindik gehiago errotzen du.

c) Tolosako gazteei formaziorako eta aisialdirako aukera positiboa eta onuragarria eskaintzen die.

d) Tolosaren irudia herritik kanpo modu guztiz positiboan zabaltzen du.

e) Tolosako udalarekiko harremana finkatzen duela herri-erakunde honek eskatzen duen guztietan erantzun positiboa emanez.

f) Aurkeztutako egitaraua guztiz orekatua eta aberatsa izateaz gainera, oso ondo uztartzen ditu elkartearen eta herriaren beraren iragana eta oraina.

Beraz, aurkeztu duten egitasmoa eta dokumentazio osagarria aztertu ondoren eta Kultur teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENEA.- Udaberri dantza taldeari 60. urteurrenako egitasmoa aurrera eramateko 3.000 euroko dirulaguntza emateko konpromisoa hartzea, hitzarmena onartuz.

BIGARRENA.- %75 ordaintzea, aldezturik dokumentu hauek aurkeztu beharko dituelarik: zerga zein Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen dituen ziurtagiriak.

HIRUGARRENA.- Dirulaguntzaren %25 hitzarmenaren 2. artikuluan ezarritako eran ordaintzea.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Udaberri Dantza Taldeari, Kontuhartzailtza eta Kultura departamentuei.

4.- Iparragirre 2an igogailua jartzeko diru laguntza proposamena.

Bi mila hamazazpiko irailaren 11n Udal Gobernu Batzarrak Iparragirre 2ko Jabe Erkidegoari oztopo arkitektonikoak ezabatzeko obregatik 1.200 €-tako diru laguntza emateko erabakia hartu zuen.

Diru laguntzaren kopurua ez zen ondo kalkulatu, izan ere 1.200 € izan ordez, kopuru egokia aurrekontu babestuaren %10 izan behar baita.

Obra zuzendaritzak egin duen ziurtagiriaren arabera, aurrekontu hori 8.994,20 eurokoa da, eta, ondorioz eman behar den diru laguntza 899,42 eurokoa da.

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Bi mila hamazazpiko irailaren 11n hartutako erabakia zuzentzea eta Iparragirre 2 zk.dun Jabe Erkidegoari 899,42€.ko diru laguntza ematea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailtza departamentuari, Erretengibeleri eta Iparragirre 2ko Jabe Erkidegoari.

El 11 de septiembre pasado, la Junta de Gobierno adoptó el acuerdo de conceder la subvención de 1.200 euros a la Comunidad de Propietarios de Iparragirre 2 por las obras de eliminación de barreras arquitectónicas.

No obstante, la cuantía de la subvención no se calculó correctamente ya que en lugar de los 1.200 euros calculados, han de corresponder al 10% del presupuesto protegible.

Que de conformidad al certificado emitido por la dirección de obras, es de 8.994,20 euros por lo que la cuantía de la subvención se establece en 899,42 euros

A la vista de cuanto antecede, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.- Rectificar el acuerdo adoptado en fecha 11 de septiembre pasado y conceder la subvención de 899,42 euros a la Comunidad de Propietarios de Iparragirre 2.

SEGUNDO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención, a Erretengibel y a la Comunidad de Propietarios de Iparragirre 2.

5.- 49, 50/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.

Kontuhartzaitzak **49/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **1.240,03** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- **49/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Kontuhartzaitzak **50/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **538.576,90** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- **50/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.

ALKATEA

Beh. Beh. IDAZKARIA